



Uda eta neguaren artean

Lurra eta zeruaren artean

~~ezin dut~~ EZ dut nahi aukeratu.

Egunez lo egin eta gauez bizi

Berotan jantzi eta euritan erantzi

Orain pozik nago, gero batek daki

Gaur hamen nago bihar edo etzi...ezin jakin.

Zerura begira/Begiak itxita/Beso zabalik/

Euriaren seme

J. Aranbarri/P.Larrañaga, T. Uribe, J. Aranbarri

# EURIAREN ZAIN






# GAUEKO LAGUNAK

T. Uribe

gauek beste

Ostiral gauean iluntasuna

Larunbat gauean ixiltasuna

Gauek beste kolore bat dute

kolore bat

Ilargi betea, komuneko lagunak,

imaginak, bizipenak.

← Toilets

dute

      

(Destrukziñoi)

## GAUA HIL EGIN DA

J. Eizagirre/J. Aranbarri

Gaua hil egin da, eta nireak ez du itzalik
Txarto sentitzen naiz Hutsik, Biluzik
Drogek ez didate batere laguntzen. Nire itzalak ez du
iluntasunik aurkitzen. Gaur ere ez zaitut topa.!!!

Egunaren haria apurtzen
zauriak begietan
gerizpeen babesik gabe
umezurtz noraezean

Bizitzaren haria eteten
lainoak begietan
loaren babesik gabe
hara eta hona, itzalen baten bila.

Denbora aurrera doa eta oraindik txarto nago
nire gauak ez du itzalik, hil egin da.
Eguna hilzorian eta ni txarrenean
hutsik, biluzik
Gaur be ez zatxut topa!

## ASILAH

K. Uribe-T. Uribe

ARZILLA

Asilah ko talapean harkaitzetan oinotsak
itzal artegak, harat_honat
gizon emakumeak
Europara heldu direla esaten diete lemazainek
itsasoan bira eta bira ibili ondoren
Ez dira konturatzen lehorrekoak izanda
Marokoko uretatik atera ere ez direla egin
Ez dira konturatzen noizbait
abiatu ziren herrialde
berera
itzuli direla, atzera.















Batuketa

## BALEAREN KANTA
J. Aranbarri

Batzutan bale bat sentitzen naiz.Bale bakar bat.Bere kideengandik urrun, urrunegi.Danok babestu nahi duzuen horietako bat.Danok ehizatu nahi duzuen horietako bat. Dokumenta_letan ikusten dituzuen horietako bat. Karelean trixkatzen dituzuen horietako bat.

Beste batzutan bale bat izango nintzake. Bale bakarti bat. Bere kideengandik urrun, urrunegi edozertarako. Eta ozeanoetan zehar ibili hego_ipar, eta izotz_mendi artean dzanga eta igeri egin. Eta zure altzoko hondar ilunetan lo egin. Eta zure altzoko hondartza baltzetan hil

Danengandik ihes egin. Danetik ihes egin.

## ISMAIL
T. Uribe

Iparraldetik berri ona dator gure auzora Omar nere lagunak lana bilatu duela Bere ondasunak batu eta etxekoak eramango ditu Telebistan paisaia eder bat agertzen da Izugarrizko etxe hondartza, gazte eta bizimodua Berdin da bidean galdu diren zerrenda berdin da bidean zendutakoak gogoratzea Ismail bere burua berotzen hasia da Edertasuna uki beharra bere gogoak darama









## EZ DUT BEHAR

J. Aranbarri/T. Uribe

Ez dut behar agiri bat nongoa **naizen** jakiteko
ez dut behar **salbatzailerik** zelan pentsa jakiteko
ez dut behar baimenik **muga** bat zeharkatzeko
Ez dut behar talderik **ardi** sentitzeko
ez dut behar siglarik atzean ezkutatzeko
ez dut behar lotsarik **sentipenak** iragazteko
ez dut behar armadarik **defendatua izateko**

Baina batez ere

**Ez dut ezer demostratu behar**

Non dago ausardia, begia
Non dago honez gero errespetua
ezerezean galdu da hori guztia
Itxurakeria baino ez da geratu

Nik hondartzan buelta bat ematea
Hodeiak, gurma agertu da
baino ez nuen nahi,
Galdua,
hamalau urterekin bezala,
Iluna,
morro puntara joan
Euria,
gauzak ikastera,
pozik, bizirik,

## EZEREZA

T. Uribe

mundu artifizial horretara.

Maitasuna Pasioa Desira...







Luisen baju









Txuma in Excelsis Deo!!!

## SAGUZARRA

K. Uribe/T. Uribe

Saguzar bat dut sabelean, saguzarra
Zure osin lohitik jaio da.
Salamandra bezala. Nire barruko
horma arrosetan egiten du lo. Lodituz doala
nabari dut egunez egun. Esnatzen da gauez, pentsa_
menduak iluntzen zaizkidanean eta bira eta bira
egiten du hegaz txilioka. Eh mugi ditzaket
besoak, zangoak. Eh ez naiz sabeleko giharren
jabe kanporatzeko saguzarra. Eh gela zuri
bat, xurgagailua sartu barrenak husteko. Eh orain
brontzezko irudi bat naiz huts hutsik, lasaiago nago
negar egiteko.

Gauza bat esan nahi dizut Jauna. Ez dakit ulertuko didazun
baina. Galbidean banago, arriskuan banaiz Arren, mesedez,
please! ez nazazu salba. Akatsetatik ikasten bada ez ezazu
eskurik sartu eta laga sartzen hanka, nire kontua da.
Inoren golkoan sartzeko ez zara egokiena, zeinek esango
astoari arre! Konpon ezazu zure etxea eta laga ni bakean.
Esan dizut behin, esan dizut twice, inperioaren hizkuntzan
eta neurean be bai. Hirugarren aldiz esango dizut, espero
dut oraingoan kasu egitea,

Home Sweet Home ederra bada gera zaitez etxean

eta laga ni bakean!

J. Aranbarri

Why don't you LEAVE ME ALONE!







...eta laugarrenak, ze eten dau ba?

## GABON ZAHARRETAKO KANTI

J. Aranbarri

Jaiotzen garenean ere min ematen dugu
Lehenengo musuak, lehenengo guzurrak
EZ DUT [illegible] MAITEMINDU
Neuk ere maite zaitut.
Egia ere denborarekin usteldu egiten da
Betirako, nik gehiago. Ilunetan maitea, ez piztu argia.
BATENBAT MINTZEN BADUT
Baina hala ere bizi egin behar ei da
Egunez egun eta aurrera begira
Eta aurrera begiratzen dudanean
EZ DUT NAHI ZORIONIK
Ez zaitut ikusten, ez Bukaerak, hasierak
ZORITXARRA BADAKAR
Mina eta poza. Musu bat, agurra
Bizitza eta heriotza.



Nun ere dab??

**Peio, Lastra, Txomin, Josu eta Josu + Kirmen**

Soinua Jose Lastra eta Jon Llamosasek grabatua Azkoitiko matadeixe, Ondarruko Kafe Antzokia eta Durangoko Platerunean. Nahasketak Jose Lastrak Tio Peten.

DVDa Josu Eizagirrek.Kamarak: Juanjo Elordi, Alex Castro, Alazne Portu, Aitor Artetxe eta Jon Iñaki Artetxe.

Argazkiak: Peio Larrañaga, Jon Pitillos, Aurkene Basabe Hector Iertxundi eta Josu Aranbarri.

Marrazkiak: Izar Aranbarri Laka

Diseinua: Josu Aranbarri

ESKERRAK:Ekaitz( Split 77), Libe eta Jose Luis, Luis( Transportes Garcia), Ondarruko Kafe antzokixe, Plateruene, Jalgi( Jon eta Xabi), Matadeixe, txuiya, Iñigo eta Mikel Santos, Jon Gurutz Etxeandia, bakotxan etxetakuk ( ederra pasientzixi),Mentxu (Zarata Jazz Kafe), Kamiñazpiko lokalekuk, Enekoitz( Biharko), Egoitz Baraja, Lea Artibai Ikastetxea, Abderrahiti eta latifa... ...eta geu ikustea etorri dan jente guztiai.

HARREMANAK: 635703424 (Txomin), piztiakrock@hotmail.com